


BEZEROAREKIKO HARREMANAK

Gure bezeroekin harremanetan egoteko, komunikabide erosoena gure web orria izango da, www.etagere.com. Bertan, guri buruzko informazio gehiago, Étagère-ri buruzko informazioa eta gurekin kontaktuan jartzeko loturak agertuko dira, hala nola, gure korreo elektronikoa (etagere@gmail.com) edo telefonoa [943684729](tel:943684729). Zalantzak gustu handiz erantzungo ditugu, beti ere lanean gauden ordutegian.



Alde batetik, web-orrialdean, bezeroak dituen kezka eta zalantzak argitzeko atal bat ireki dugu . Bertan, zenbait azalpen daude kezka arruntenetarako. Atal horretan, gure xafla paretan nola ipintzen den bideoak eskaintzen ditugu, besteak beste. Xaflaren argi bideekin edo Étagère-ren fabrikazioarekin arazo bat izanez gero, bertatik esan diezagukezue, guk horiek hobetu ditzagun. Bestetik, bezero bakoitzak Étagère-ren diseinu pertsonalizatua egiteko atal bat ere izango da, bertan, bakoitzaren gustuak analizatuko dira eta horien arabera, bezeroarekin bat egiten duen produktu bat diseinatzen saiatu.



Gure web orriak eskaintzen dituen errestasunez gain, beste aukeretako bat da gure enpresak duen aplikazioa instalatzea da (etagereapp). Aplikazioan, web orriaren informazio berdina dago, baina,



erosoago, bertatik ere erosteko aukera ere izango da. Gainera, inkestak eta galdetegiak egongo dira zuen iritzi eta balorazioak bertan ipintzeko eta gure produktua hobetu ahal izateko.

Pixkanaka xaflaren aurrerapenak eta funtzionamendua hobetzen joango gara, hau da, galdetegiaren erantzunak, zuen balorazioak eta webguneko kritikak aztertuko ditugu, ea hobetzeko zer egin dezakegun ikusteko.

Korreo elektronikoaren bidez gure bezeroei jakinaraziko diegu aplikazioari buruzko berri guztietaz, honek abisatuko dizue abisu baten bidez, adibidez, produktuaren beherapenak eta ofertak badaude edo eguneratze berriak ateratzen badira. Gehienetan, beherapen kupoiak izaten dira, orduan hauek aprobetxatzeko aukera izango duzue.